EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
*Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza*
*Langile-hornikuntza*

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
*Dirección de Gestión de Personal*
*Provisión de Personal*

# 2023/2024KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAK

# MEREZIMENDUEN AURKEZPENA EGITEKO ETA LANPOSTU BEREZIEN BETEKIZUNAK EGIAZTATZEKO APLIKAZIO INFORMATIKOAREN GIDA

*(2023, azaroa)*

## MEREZIMENDUAK ENTREGATZEA

Lekualdatze-lehiaketako merezimenduen aurkezpena on line bakarrik egingo da, https://www.hezigunea.euskadi.eus Internet-eko helbidean dagoen aplikazio informatiko baten bidez.




Hizkuntza-bertsioa aldatu ahal izateko, bi aukera daude:

### 1go aukera:

Klik egin pantailaren goiko ezkerreko aldean agertzen diren 3 marratxoetan. Irekitzen den lehiatilan gogoko duzun hizkuntza aukeratu beharko duzu.




**2.go aukera:**

Gaztelaniazko bertsioan sartu nahi baduzu, sartu helbide hau: https://hezigunea.euskadi.eus/es

Euskarazko bertsioan sartu nahi baduzu, sartu helbide hau: https://hezigunea.euskadi.eus/eu

Sartzeko, NAN zenbakia eta pasahitza sartu behar da.




Merezimenduak aurkezteko, atal hauek hautatu behar dira jarraian: Eremu pertsonala/ langileekiko izapideak/ Lekualdatze-lehiaketa/ **MEREZIMENDUAK ENTREGATZEA**




**MEREZIMENDUAK ENTREGATZEA** esteka hautatu beharko duzun pantaila ondorengoa da.




Ondoren, zein irakasle-kidegotarako parte hartu nahi duzun aukeratu beharko duzu:




Une honetatik aurrera, merezimenduak entregatzeko aplikazioaren barruan dago.

Merezimenduak alegatzeko eta entregatzeko prozesua hasi aurretik, **JARRAIBIDEAK arretaz irakurtzea gomendatzen dugu.**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO




Onartzen diren dokumentu bakarrak PDF formatuan izango dira. Pdf ez den dokumentu bat igotzen saiatzen bazara, aplikazioak honako mezu hau erakutsiko dizu: **“Dokumentuak pdf formatua izan behar da”**, eta ez dizu dokumentua igotzen utziko adierazitako formatuan izan arte.




Dokumentuak eransteko, jarraitu orrialdeko jarraibideei.

Dokumentua kargatu nahi duzun atala hautatzen ez baduzu (zirkulu zuria), aplikazioak honako mezu hau azalduko du: **“Ez da merezimendurik hautatu”.**




Beraz, ondorengo irudian, lauki gorriak adierazten duen bezela hautatu beharko duzu.




Berrikuntza gisa, lekualdatze-lehiaketa honetatik 1 izeneko eremu berri bat sartu da. **1.Antzinatasuna. Ofiziozko zenbaketa. Zerbitzu-lerroetako akatsetarako BAKARRIK**.




Atal hau zerbitzu-lerroetan akatsak adierazteko edo zerbitzu-eremuren bat ez dagoela adierazteko BAINO EZ DA. Kasu horietan, pdf formatuan igo beharko da zerbitzu-

aldietan (izendapena, etab.) errorea edo absentzia egiaztatzen duen dokumentua. Zerbitzuekin ados bazaude, ez duzu **inola ere** igo beharko zerbitzu-orria, administrazioak ofizioz zenbatuko baitu.

Merezimenduak alegatu eta aurkezteko dokumentua nahitaez bete behar da. Beraz, **"dokumentazioa entregatu eta erregistratu"** sakatuz ixten bada, aplikazioak mezu hau emango dio: "**Ezin da entregatu alegazio-dokumenturik ez badago".** Beraz, alegazio-dokumentua erantsi eta berriro itxi beharko du, dena behar bezala gorde eta erregistratuta gera dadin.




**"Dokumentazioa entregatu eta erregistratu"** sakatu ondoren, aplikazioak erregistro-dokumentu bat sortuko dizu, eta entregaren frogagiri gisa gorde beharko duzu:



**EAEko Administrazio Publikoa**
**Erregistro elektronikoa. Aurkeztutako dokumentuen agiria**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**Erregistroko datuak**

| | |
|---|---|
| **Erregistro-zenbakia** | 2021RTE00022105 |
| **Erregistro-data** | 21/10/14 09:59:28 |
| **Eskaeraren jasotze-data** | 21/10/14 09:59:28 |

**Igorlea**
14606345 - NOMB_14606345 APE1_14606345 APE2_14606345

**Jasotzailea**
Hezkuntza Saila - Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

**Gaia**
Merezimenduak entregatzea.2021ko Lekualdatze Lehiaketa: 202..pdf,202..pdf

**Administrazio-isiltasunaren ondorioa**
Administrazio-isiltasuna konfiguratu gabe dago

**Ebazteko gehienezko epea**

**Erantsitako dokumentuak**
» **Modu elektronikoan sinatu duena:**
EAEko Administrazio Publikoa

Entregatutako eta erregistratutako dokumentuak aldatu (ordezkatu, gehitu...) nahi badituzu, betiere merezimenduak aurkezteko epearen barruan bada, beste entrega berri bat egin ahal izango duzu dagokion azpiatalean.

**GARRANTZITSUA:** Entrega berri honek **<u>aurrekoa ezabatzen</u>** du, eta, beraz, dagokion azpiatalean baremattu nahi den dokumentazio guztia sartu beharko da PDF-an. **Entregatutako eta erregistratutako azken PDFan jasotako dokumentuak <u>bakarrik</u> hartuko dira kontuan.**

Horretarako entregatutako dokumentuak aldatu nahi badituzu (ordezkatu, erantsi,...), "EGIAZTAGIRIAK" zutabean hautatu dagokion azpiatala - Atxikitu berriz **dokumentazio guztia aldaketa egin ondoren** "Arakatu" bidez - Sakatu "Gorde" - Sakatu "Amaitu dokumentazioa entregatzea eta erregistratzea". Azken pausu honek beste erregistro-dokumentu bat sortuko du.



MEREZIMENDUAK ALEGATZEA

Merezimenduak alegatzeko eta aurkezteko orria

Examinar... Ningún archivo seleccionado. Gorde

MEREZIMENDUAK ENTREGATZEA

Examinar... Ningún archivo seleccionado. Gorde

Amaitu dokumentazioa entregatzea eta erregistratzea

| LHKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOA | EGIAZTAGIRIAK |
|---|---|
| 1. Antzinatasuna. Ofiziozko zenbaketa. Zerbitzu-lerroetako akatsetarako BAKARRIK | ○ |
| 3.1.1.-Doktore titulua | ○ |
| 3.1.2.-Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatutakoa ez den Master ofiiziala | ○ |
| 3.1.3.- Ikertzeko nahikotasuna / ikasketa aurreratuen diploma | ○ |
| 3.1.4.- Doktorego, lizentziatura edo graduan aparteko sariak edo Konserbatorietan goi-maila ohorezko aipamena | ○ |
| 3.2.1.- Graduaren unibertsitate-titulu ofiziala edo baliokideak | ○ |
| 3.2.2.- Lehen zikloko titulazioak (Diplomatura, Ingeniaritza tekniko edo Arkitektura tekniko edo Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturaren lehen zikloa) | ○ |
| 3.2.3.- Bigarren zikloko titulazioak (Lizentziatura, Ingeniaritza, edo Arkitektura) | ○ |
| 3.3. abcd.- Hizkuntza Eskola Ofizialek ematen dituzten titulazioak (B1 C2tara mailak) | ○ |
| 3.3. e.- LH goi-mailako Teknikari, Arte Plastiko eta Diseinu eta Kirol tituluak edo baliokideak | ○ |
| 3.3. f.- Musika-edo dantza- titulu profesionalak | ○ |
| 3.4.- Atzerriko hizkuntzaren ezagutza (B2, C1 eta C2). Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua | ○ |

# LANPOSTU BEREZIEN BETEKIZUNAK EGIAZTATZEA

Lanpostu berezi jakin batzuetarako (UHEI, Hegoa HLHI eta ALE espezialitatea) baldintzak egiaztatzeko sistemak merituak emateko erabilitako eskemaren antzekoa jarraitzen du.




<u>Eskakizun bereziak egiaztatzeko (ALE, HLHI, HEGOA HLHI eta UHEI),</u> atal hauek hautatu behar dituzu jarraian: Eremu Pertsonala/ Izapideak langileen sailarekin/ Lekualdatze-lehiaketa/**PLAZA BEREZIEN BETEKIZUNAK EGIAZTATZEA (ALE, HLHI, HEGOA HLHI eta UHEI)**




Une horretatik aurrera, betekizunak egiaztatzeko aplikazioaren barruan dago. Alegazioa entregatzeko eta dokumentuak entregatzeko prozesua hasi aurretik, **JARRAIBIDEAK** arretaz irakurtzea gomendatzen dugu.




Prozesua honako hau izango litzateke:

**1-.** Bete alegazio-orria




Gorde zure ordenagailuan/Erantsi "Arakatu" bidez/"Gorde" botoia sakatuz.

**2-.** Dokumentuak erantsi (PDF formatuan):




“Arakatu” botoiaren bidez dokumentua aukeratu eta ondoren, sakatu.

* Erantsitako dokumentu bat ezabatu nahi baduzu, aukeratu eta sakatu ikonoan.

Azkenik, **"Dokumentazioa entregatu eta erregistratu".** Erregistro elektronikoaren egiaztagiria deskargatuko da (irten aurretik, inprimatu eta/edo gorde, behin bakarrik deskargatuko baita).

**3-.** Entrega eta erregistroa amaitu ondoren, "Entregatutako eskaera bistaratzea" atala agertuko da.




Atal hau ikustea gomendatzen da, entrega zuzena dela egiaztatzeko.